

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Elkarte eta fundazioentzako laguntza deialdia, beraien gizarte lokalak birgaitzen eta egokitzen laguntzeko eta beraien gizarte jarduerak eta/edo programak garatzeko beharrezko guztiaz hornitzen laguntzeko**

2019ko ekitaldia

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2019ko maiatzaren 30an egindako bilkuran, laguntza deialdi hau onartzea eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen hura arautuko duten,

#### OINARRIAK

##### **Lehenengoa. Deialdiaren xedea eta araudi aplikagarria**

Deialdiaren xedea da 2019an zehar, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak elkarteei edo fundazioei eman ahal izango dizkien laguntzak arautzea, beraien gizarte lokalak birgaitzen eta egokitzen laguntzeko eta beraien gizarte jarduerak eta/edo programak garatzeko beharrezko guztiaz hornitzen laguntzeko, baldin jarduera eta programa horiek GOFEn jardun esparrukoak badira.

Deialdi honen xede diren laguntzak emateko, kontuan hartuko da ea betetzen diren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 1eko 8/2011 Foru Dekretuan eta indarrean dagoen araudian ezarritako baldintza eta betebeharrak. Foru dekretu horren bidez, Gizarte Zerbitzuen Sailak eta haren erakunde autonomo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez ematen dituzten dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak onartu ziren.

##### **Bigarrena. Deialdiaren aurrekontua**

Deialdi honen babesean ematen diren laguntzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2018ko aurrekontu 2019ra luzatuaren partida honen kredituei egotziko zaizkie: 1.80204.0422.781.00.01 "Elkarteetarako laguntzak. Zentroen ekipamendua" Partida hori 30.000 euroz zuzkiturik dago deialdi honetarako.

##### **Hirugarrena. Erakunde onuradunak**

3.1. Irabazteko xederik gabeko elkarteak edo fundazioak izango dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta haien jarduerak deialdiaren xedearekin bat badatoz. Horretarako, deialdi honek, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, eta Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde autonomo den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez emango dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrek ezarritako betebeharrak eta baldintzak bete beharko dituzte.

3.2. Honako hauek deialditik kanpo geldituko dira berariaz:

a) Estatuaren edo autonomia erkidegoaren menpe dauden erakundeak, zentroak edo zerbitzuak, bai eta aurrezki kutxen edo irabazteko asmoa duten erakundearen menpe daudenak ere.

b) AFAn beste sail edo zuzendaritza batzuekin nahiz beste erakunde publiko batzuekin zerikusia duten beste eremu edo talde batzuei atxikitako jarduerak edo programak dituzten erakundeak.

c) Beren jarduera Gasteizko udalerrira mugatzen duten elkarte edo erakundeak.

- d) Aurreko ekitaldietan erreklamatu zitzaizkien dirulaguntzak itzuli ez dituzten erakundeak.
- e) Eskatutako laguntzarekin egin beharreko jarduerak Arabako Lurralde Historikoaren barruan egiten ez dituzten entitate edo erakundeak.
- f) Ganberak, kooperatibak, elkargoak, hezkuntza erakundeak, sozietate zibilak, sindikatuak edo merkatari eta profesionalen elkarteak, oro har, bai eta horietan sartuta edo horiei atxikita dauden talde eta elkarteak ere, baldin eta beren plazen ehuneko 75 baino gehiago erakunde jakin bateko kideentzat, enplegatuentzat edo senitartekoentzat gordeta badauzkate edo kide izateko aukera mugatzen dutenak badira.
- g) Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretuak, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortzen duenak, xedatutakoari jarraituz Gizarte Zerbitzuen Erregistroan izena eman ez duten elkarte edo fundazioak.
- h) Kideak onartzeko prozeduran edo jardunbidean, sexuan oinarrituta diskriminatzen duten elkarteak edo fundazioak, eta, sexuan oinarritutako diskriminazioa egin dutelako, administrazio bidean edo zigor bidean zehapena izan duten elkarteak edo fundazioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legeari jarraikiz debeku hori ezarri zaienak ere.
- i) Erakunde publikoak barruan dituzten elkarteak edo fundazioak.
- j) Arabako Lurralde Historikoan egoitzarik ez duten elkarteak edo fundazioak.

#### **Laugarrena. Laguntzen xedea eta diruz lagundu daitezkeen jardunak**

4.1. Arabako Foru Aldundiak gizarte zerbitzuen arloan ezarritako helburuak betetzeko xedez, dirulaguntzak jarduera hauetan erabiliko dira:

- Gizarte lokalak birgaitzea, eraberritzea, hobetzea edo egokitzea.
- Gizarte lokaletarako zein gizarte jarduerak edo programak egiteko beharrezko ekipamendu eta altzariak erostea edo konpontzea.

4.2. Hauek lagundu ahalko dira diruz:

- Gizarte lokalak eraberritu edo egokitzea, erakundearen funtzionamendu egokirako.
- Gizarte lokaletan oinarritako iriztitako ekipamenduak: sail honen jardueran lehentasuna duten talde zehatzak artatzeko aulkiak, mahaiak, armairuak, antzerako altzariak eta bestelako ekipamenduak.
- Ikus-entzunezko eta komunikazioko ekipamendua (telefonoa, faxa, telebista, DVD eta antzeko ekipamendua).
- Informatika ekipamendua (ordenagailu finkoa, eramangarria edo tableta; inprimagailua, monitorea, segurtasun sistemak, oinarritako bulego edo kontabilitate softwarea eta antzeko ekipamendua). Dirulaguntzak emango dira, ondoko baldintza hauetako bi behintzat betez gero:
  - Dirulaguntza jaso izana jarduera/programetarako, azken 5 ekitaldi amaituetako bitan gutxienez, dirulaguntzetarako deialdietan nahiz hitzarmenen bidez.
  - Elkarteen bazkide kopurua ehunetik gorakoa izatea, eta fundazioen patroikopurua, ordea, hirutik gorakoa.
  - Artatutako pertsonak 100 baino gehiago izatea (lehentasuna duten taldeetako pertsonak, ez biztanleak oro har).

Salbuespenez, behin balioespen teknikoa egin ondoren, ekipamendu informatiko baterako dirulaguntza emango zaie aurreko atalean ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten elkartei, bereziak izateagatik, hau da, baldin eta jarduera bolumen eta erabiltzaile edota bazkide taldearen osaera esanguratsua badute.

- Proiektzio eta erreproduktzio ekipamendua (fotokopiagailua, bideo proiektorea, soinu erreproduktzailea eta antzeko ekipamendua). Dirulaguntzak eman daitezke, baldintza haue-tako bi behintzat betez gero:

- Elkarteen bazkide kopurua ehunetik gorakoa izatea, eta fundazioen patroikopurua, ordea, hirutik gorakoa.

- Artatutako pertsonak 300 baino gehiago izatea (lehentasuna duten taldeetako pertsonak, ez biztanleak oro har).

- Erakundearen xede nagusietako bat GOFEn jardueran lehentasuna duten taldeen prestakuntza izatea.

- Gizarte jardueretarako behar diren bestelako ekipamendu edo altzariak.

#### 4.3. Kanpoan utziko dira:

- Proiektuak egiteak, profesionalen soldatek eta elkargoen eskubide edo zigiluek sorrarazitako gastuak.

- Kiroldegiak, erlijio zentroak, museoak, txokoak eta osasun zentroak gaitzea, eraberritzea edo hornitzea.

- Kultura edo kirol lokaletan egindako lanak edo erosketak edo Aldundiko beste sail edo zuzendaritza batzuetako dirulaguntzak jasotzen dituzten jarduerak edota mantentze lanak.

- Kontzejuetako edo udal administrazioko beste toki publiko batzuetako etxe edo aretoak birgaitu, egokitu edo hornitzearen ondoriozko gastuak.

- Sukalde industrialak.

- Aldundiaren eskumeneko egoitzetako, eguneko zentroetako edo lanerako zentroetako ekipamenduak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin lankidetzak hitzarmena edo kontratua eginda kudeatzen direnak.

- Fatxadak egokitzea (bizilagun erkidegoen gastuak izan ezik).

- Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira.

4.4. Diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko dira eta, hortaz, deialdi honen bidez finantzatu ahal izango dira, diruz lagundutako exekuzioaren edo proiektuaren izaerari inolako zalantzarik gabe atxiki, behar-beharrezkoak izan eta 2018ko abenduaren 1etik 2019ko azaroaren 30era bitartean egiten direnak.

4.5. Dirulaguntzarako onartzen den aurrekontuaren ehuneko 100 azpikontratatu daiteke, baldin eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzenaren, 27. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badira. 27.7.d) artikuluan xedatutakoaren arabera loturarik badago, baimena eskatu behar da azpikontratatzeko, organo emaileari zuzendutako idazki bidez. Deialdi hau argitaratu aurretik azpikontratatu bada, onartu egingo da baimen eskaera laguntza eskaerarekin batera aurkeztea. Horrek, ordea, ez du zehazten erantzuna halakoa edo bestelakoa izango den.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea**

5.1. Araututako ereduak erabili behar da deialdi honetako laguntzetarako eskabideak betetzeko. Eredu hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen dago eskuragarri, helbide honetan: San Prudencio kalea, 30- 1.a – Gasteiz. Halaber, erakunde honek modu telematikoan eman diezazkieke eredu horiek hala eskatzen duten erakundeei, eta ondoko estekatik ere deskargatu ahal izango dira: [mailto: www.araba.eus/ifbs](mailto:www.araba.eus/ifbs) (Erakundeak erlaitza> Laguntzak eta dirulaguntzak bannerak).

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gizartegintza Arloak argibideak eta aholkularitza eskainiko dizkie, deialdi honen esparruan, dirulaguntzaren bat eskatu nahi duten erakundeei. Kontsultak bide hauek erabiliz egin daitezke:

San Prudencio kalea, 30- 1.a

Telefonoa: 945 151015

Faxa: 945 121074

Edo posta elektronikoko helbide hauetan: [mdomingo@araba.eus](mailto:mdomingo@araba.eus).

[lfbsayudasins@araba.eus](mailto:lfbsayudasins@araba.eus).

5.2. Eskaerarekin batera, oinarri hauetan eskatutako agiriak ere aurkeztuko dira, aurreko idatz zatian adierazitako lekuan. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, azken xedapenean araututakoarekin bat etorritik, 16. artikuluan ezarritako moduan ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak. Eskaerarekin batera, dirulaguntzetarako eskatzen diren agiriak (jatorrizkoak) aurkeztu behar dira.

5.3. Erakunde eskatzaileek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean aurkez ditzakete laguntza eskaera hori eta erantsitako dokumentazioa. Halaber, laguntza eskaeraren ondoriozko jarduketan eta prozedura guztian zehar, erakunde eskatzaileek aukeratutako hizkuntza erabiliko da, euskararen erabilera normalizatzeko Oinarrizko Legeak (10/1982 Legea, azaroaren 24koa) 6.1 artikuluan xedatzen duen bezalaxe.

#### **Seigarrena. Aurkezteko epea**

6.1. Laguntza eskaerak aurkezteko, 15 egun baliodun egongo dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6.2. Epe barruan aurkeztutako eskaerak ebatzi ondoren, eta aurrekontuetan horretarako nahikoa kreditu badago, salbuespen gisa, 6.1 idatz zatiak adierazitako epetik kanpo ere onartuko dira eskaerak, baina, inola ere ez, 2019ko azaroaren 30a baino geroago. Horrelakoetan, eskatutako laguntzen beharrak ezarritako epe arruntaren azken eguna igaro ondoren sortu direla egiaztatu beharko da, eta eskaerak indarrean dagoen arautegiaren arabera justifikatzeko arrazoi frogatuak daudela.

#### **Zazpigarrena. Aurkeztu beharreko agiriak**

7.1. Agiri komunak.

7.1.1. Bosgarren oinarrian aipatzen den eskabide orria, erakundearen ordezkariak edo ahalmen nahikoa duenak sinatua, besteak beste, ondoko datu hauek jasotzen dituena:

- Eskatzailea eta eskatutako ekipamenduak edo exekuzioak.
- Diruz lagundu daitekeen ekipamendu edo exekuzio bakoitzaren aurrekontua eta haien zat eskatutako zenbatekoa.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin lankidetzan aritzeko konpromisoa, bai eta birgaitze lanak egiteko laguntza jasoko duen zentroaren helburua gutxienez 10 urtean ez aldatzekoa eta eskuratutako ondasunen erabilera gutxienez 4 urtean ez aldatzekoa ere.
- Eskaera sinatzen duenaren ordezkatzeko ahalmenaren egiaztagiria eta organo eskudunaren ziurtagiria eskaera baimenduz.
- Elkartearen edo fundazioaren izena eta datuak. Nortzuk diren zuzendaritza batzordeko edo patronatuko kideak, eta zenbat pertsona dituen bazkide, boluntario, eta abar, betiere sexuaren arabera xehakaturik. Erakundearen legezko eratze-data.
- Dirulaguntza eskaeraren xede den lokalaren identifikazioa.
- Helburu bera betetzea xede duten beste sarrera edo dirulaguntza batzuk.

7.1.2. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. 7.d) artikulua aplikatuz, azpikontratazioan lotura egonez gero: baimen eskaera jarduerak pertsonekin edo lotutako erakundeekin azpikontratatzeko.

7.1.3. Memoria teknikoa, eskatzen den ekipamenduaren edo egin nahi diren obraren beharrari buruzkoa, honako hauek zehazten dituen:

- Eskatzen den obraren deskribapena.
- Horren beharren justifikazioa.
- Eskatutakoa entitatearen xedeei eta jarduerari egokitzen zaielako adierazpena.

7.1.4. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak: Dirulaguntzak eskatzen dituzten erakundeek egunean ordainduta izan beharko dituzte zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz eskatuko dio Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari ziurtagiria, eskaera egiten duen erakundea Gizarte Segurantzarekiko betebeharratan egunean dagoela egiaztatzeko, bai eta Foru Ogasunari ere, zerga betebeharratan egunean dagoela egiaztatzeko; behar adina aldiz egin ahal izango die eskaera GOFEk aipatutako erakundeek, salbu eta, dirulaguntza 800,00 euro baino txikiagoa izanik, erakundeak hori egiaztatzeko betebeharratik salbuetsita dauden kasuetan, betiere 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera. Erakunde eskatzailea aurreko agiriak direla-eta GOFEk egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera, eta aurkeztu ere eskatzen zaion beste bider. 7.2. Berariazko agiriak.

7.2.1. Gizarte lokalak birgaitu eta egokitzeko:

- Proiektu teknikoa, beharrezkoa izanez gero.
- Egingo diren obrak egiaztatzeko proiektu teknikoa edo aurrekontua:

1. Obra edo egokitzapenak gauzatzeko aurrekontua 1.500 euro baino gutxiago bada (BEZik gabe), aurrekontu bat aurkeztu beharko da.

2. Obra edo egokitzapenak gauzatzeko aurrekontua 1.500 euro edo gehiago bada (BEZik gabe), bi aurrekontu aurkeztu beharko dira.

3. Obra edo egokitzapenak gauzatzeko aurrekontua 40.000 euro edo gehiago bada (BEZik gabe), hiru aurrekontu aurkeztu beharko dira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen Foru Arauak (11/2016 Foru Araua) 29.3 artikuluan aurreikusten duena aplikatuz.

Eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz aukeratuko da aurkeztutako eskaintzen artean; egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean.

- Jabetza erregistroaren ziurtagiria edo ondasunen inbentarioaren ziurtagiria, ondasun higiezinaren jabetza egiaztatzen duena, bai eta dituen kargak ere, halakorik badago. Ziurtagiri hori lehenago aurkeztu bada, eta harrezkero aldaketarik gertatu ez bada, nahikoa izango da horren data zehatza idatziz adieraztea, eta datu horiek ez direla aldatu azaltzea ziurtagirian. (Eskaerarekin batera erreferentziatzko eredia aurkezten da).

- Lagatako edo errentan emandako higiezinetan egin beharreko obretarako: lagapena edo alokairua egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da, bai eta jabetza duenaren baimen egokia ere, hura zein baldintzatan egin den adierazten duena. Ziurtagiri hori lehenago aurkeztu bada, eta harrezkero aldaketarik gertatu ez bada, nahikoa izango da horren data zehatza idatziz adieraztea, eta datu horiek ez direla aldatu azaltzea ziurtagirian. (Eskaerarekin batera erreferentziatzko eredia aurkezten da).

• Udalak egingo diren obretarako eman duen baimenaren ziurtagiria; jasotako dirulaguntzen justifikazioarekin batera aurkeztu daiteke hori. Udalak horrelako baimena eskuratzeko beharrik ikusten ez badu, baimen hori eskuratzetik salbuesten duen udalaren agiria.

7.2.2. Ekipamendua edo altzariak erosteko edo konpontzeko:

– 1. Ekipamendu erosketa edo konponketarako aurrekontua 1.000 euro baino gutxiago bada (BEZik gabe), enpresa hornitzaile baten aurrekontua aurkeztu beharko da.

– 2. Ekipamendu erosketa edo konponketarako aurrekontua 1.000 euro edo gehiago bada (BEZik gabe), bi enpresa hornitzailearen aurrekontuak aurkeztu beharko dira.

– 3. Ekipamendu erosketa edo konponketarako aurrekontua 15.000 euro edo gehiago bada (BEZik gabe), hiru enpresa hornitzailearen aurrekontuak aurkeztu beharko dira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen Foru Arauak (11/2016 Foru Araua) 29.3 artikuluan aurreikusten duena aplikatuz.

Eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz aukeratuko da aurkeztutako eskaintzen artean; egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean.

Gastua dirulaguntza eskatu baino lehenago egin bada, erakunde eskatzailea aipatutako aurrekontuak aurkeztetik salbuetsita egongo da, eta kasu horretan egindako gastuaren faktura aurkeztuko da.

7.3. BEZ zergaren salbuespena: 15.4 oinarriari dagokionez, BEZaren salbuespena egiaztatuko da zerga administrazio eskudunak eman beharreko salbuespen egiaztagirari bidez, baldin eta alde aurretik dagoeneko aurkeztu ez bada. GOFEk dagokion zerga administrazioan egiaztatuko du salbueste hori badela. Bestela, salbuespena erantzukizunpeko adierazpen bidez ere egiaztatu ahalko da, betiere honakoa adieraziz: erakunde eskatzaileak ez duela irabazi asmorik, lortutako etekinak salbuetsitako jarduerak aurrera eramateko erabiltzen direla eta lehendakari, elkar-teburu edo ordezkariaren karguak doakoak eta ordainik gabekoak direla. Eskaera aurkezteak GOFeri baimena ematen dio adierazpen hori egiaztatzeko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan. Erakunde eskatzailea aurreko agiriak direla-eta GOFEk egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera.

#### **Zortzigarrena. Balioespen irizpideak**

Hona hemen eskaerak balioesteko irizpideak:

a) Komeni direla, atzeratu daitezkeela edo desegokiak direla uste diren obrak eta/edo erosketak: 30 puntura arte:

– Komenigarri direla uste diren obrak edo erosketak: 30 puntu. Kalifikazio hori izango du, zerbitzuaren, lokalaren, ekipamenduaren... egoera txarra delako edo nahikoa ez delako, obra edo erosketa hori egitea ezinbestekoa bada.

– Atzeratzeko modukoak direla uste diren obrak edo erosketak: 15 puntu. Kalifikazio hori izango du zerbitzuaren, lokalaren, ekipamenduaren... egoera hala moduzkoa denean, hau da, ez denean beharrezkoa berehala konpondu edo erostea.

– Desegokiak direla uste diren obrak edo erosketak: 0 puntu. Kalifikazio hori izango du zerbitzuaren, lokalaren, ekipamenduaren... egoera egokia dela uste denean, hau da, aproposa denean edo jadanik nahikoa ekipamendu dagoenean.

Diruz laguntzeko modukoa izateko, jarduerak 15 puntu izan behar ditu gutxienez.

b) Eskatutako obra edo erosketaren egokitasuna, premia eta koherentzia erakundeak ematen dituen zerbitzu edo programen helburuekin: 30 puntura arte.

– Obra edo erosketa guztiz loturik badago erakundeak ematen dituen zerbitzu edo programekin: 30 puntu.

– Obra edo erosketa osagarria bada erakundeak ematen dituen zerbitzu edo programen garapenarekin: 15 puntu.

– Obra edo erosketak ez badu loturarik erakundeak ematen dituen zerbitzu edo programekin: 0 puntu.

c) Aurreko ekitaldian guztira emandako dirulaguntzaren justifikazioa. Gehienez, 20 puntu. Aurreko ekitaldian aurkeztutako justifikazioa balioetsiko da, kontuan hartuta zein izan zen horren ondorioz emandako zenbatekoa guztira.

Azkenean, aurreko ekitaldian emandako amaierako zenbatekoa hasierako zenbatekoaren ehuneko 90etik ehuneko 100era bitarteko tartean badago, edo diru laguntza jaso ez badu, edo justifikatutako arrazoiengatik ezin izan badu diruz lagundutako jarduera egin eta dirulaguntzari uko egin bazaio azaroaren 30a baino lehen.	20 puntu
Aurreko ekitaldian emandako amaierako zenbatekoa hasierako diru zenbatekoaren ehuneko 75etik ehuneko 89ra bitarteko tartean badago.	10 puntu
Aurreko ekitaldian emandako amaierako zenbatekoa hasierako zenbatekoaren ehuneko 75etik beherakoa bada.	0 puntu

d) Elkartearen edo fundazioaren gizarte eragina: 20 puntura arte. Erakundearen esku hartzea lagun kopuru handi batengana heltzea balioetsiko da.

Arreta jasotako pertsonen kopurua 80 baino gehiago denean	20 puntu
60 eta 80 bitartean	15 puntu
30 eta 59 bitartean	10 puntu
10 eta 29 bitartean	5 puntu
10 baino gutxiago	0 puntu

#### **Bederatzigarrena. Ukatzeko arrazoiak**

a) Deialdi honen edozein oinarri ez betetzea edo Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde autonomo den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez emango dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak ez betetzea.

b) Hamabigarren oinarriak ezarritakoari jarraikiz, proiektuak gutxienez 51 puntu ez lortzea.

c) Eskatutako kontzeptua eta laugarren oinarriaren lehen idatz zatian ezarritako xedea bat ez etortzea.

d) Deialditik kanpo utzitako kontzeptua da, laugarren oinarriko hirugarren idatz zatian ezarritakoari jarraikiz.

e) Aurreko ekitaldietan dirulaguntza jaso duen ekipamendua da eta/edo ez da igaro kontzeptu bererako beste dirulaguntza bat lortzeko gutxienerako epea, hamaikagarren oinarriaren arabera.

#### **Hamargarrena. Lehenetasun multzoak eta diruz lagundu daitezkeen jarduerak<sup>1</sup> lehenetasun multzoa:**

1 lehenetasun multzoa:

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Aurrekontuko II. kapituluaren itundutako zerbitzu edo programei dagozkien ekipamendu, egokitze edo eraberritzeak.

2 lehenetasun multzoa:

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Aurrekontuko IV. kapituluaren hitzartutako zerbitzu edo programei dagozkien ekipamenduak

3 lehentasun multzoa:

Arrazoi hauetakoren batengatik egin behar diren eraberritze lanak edo ekipamenduak: lapurretak, ezbeharrak lokaletan edo ekipamenduetan, bizilagun erkidegoetan egindako ez-ohiko eraberritzeak eta/edo erakundearen funtzionamendurako ezohiko obrak edo egokitze lanak.

4 lehentasun multzoa:

Altzariak eta/edo oinarritzko beste ekipamendu batzuk.

5 lehentasun multzoa:

Aurreko 1. eta 3. puntuetan jasotzen ez diren egokitze edo eraberritzeak, horietarako eskaera 2.000 euro baino gehiagokoa ez bada.

6 lehentasun multzoa:

Ikus-entzunezko ekipamenduak, proiektzioak eta/edo komunikazioak, gizarte entitateetako egoitzetakoak, landa zonetakoak izan ezik.

7 lehentasun multzoa:

Informatika eta erreproduzio ekipamenduak.

8 lehentasun multzoa:

Ikus-entzunezko ekipamenduak, proiektzioak eta/edo komunikazioak, landa zonetako gizarte entitateek erabilitako landa lokaletakoak.

9 lehentasun multzoa:

Aurreko 4. puntuan jasotzen ez diren altzariak eta/edo ekipamenduak.

10 lehentasun multzoa:

Egokitzeak edo eraberritzeak, haietarako eskaera 2.000 euro baino gehiagokoa bada.

**Hamaikagarrena. Diruz lagundu daitezkeen mugak eta diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontuak**

A) Diruz lagundu daitezkeen mugak:

- Birgaitze eta egokitze lanen exekuzio guztien aurrekontu onartuaren ehuneko 100 finantzatu ahal izango da gehienez ere. Salbuespena izango dira landa zonan egon eta erakunde publikoenak diren lokaletako ekipamenduak, aurrekontu onartuaren ehuneko 80 aplikatuko baita gehienez ere. Lokala beste elkarte batzuekin batera erabiltzen bada, elkarteak lokala zer neurritan erabili halako dirulaguntza jasoko du.

- Aurrekontu onartuaren edo modulu ereduaren mugaren ehuneko 100 finantzatuko da gehienez ere. Salbuespena izango dira landa zonan egon eta erakunde publikoenak diren lokaletako ekipamenduak, aurrekontu onartuaren ehuneko 80 aplikatuko baita gehienez ere. II. kapituluko lankidetzak hitzarmena ez duten erakunde bulegoko eta informatikako ekipamenduei dagokienez, oro har, lanpostu baterako behar dena finantzatuko da erakunde bakoitzeko.

Bi kasu horietan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin II. kapituluko lankidetzak hitzarmen bidez kudeaturiko zerbitzu/baliabideetarako eskaerak direnean, aurrekontu onartuaren ehuneko 100erainoko dirulaguntza eman ahal izango da, GOFEk azken hitzarmen onartuari egiten dion ekarpen ekonomikoa hitzarmen horretarako egin diren ekarpen publikoen guztirakoaren ehuneko 80koa bada gutxienez. Ekarpena txikiagoa balitz, kasuan kasuko finantzaketa ehuneko aplikatuko da.



• Diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoak modulu eredu hauetan zehaztuta agertuko dira:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN MODULU EREDUAK	MUGAK
Bilera mahaia	293,00
Bulegoa (mahaia+tiradera altzaria+besaulkia+2 eserleku)	656,00
Bulego mahaia tiraderarik gabe	292,00
Bulego mahaia tiraderekin	426,00
Kanpoko mahai tolesgarria	35,00
Artxibo tiraderaduna	304,00
Erabilera anitzeko mahaia	164,00
Bulegoko besaulkia	136,00
Bulego eserlekua eta/edo eserleku tapizatua	61,00
Eserleku tolesgarria	14,50
Eserleku pilagarria	33,00
Armairu garaia	410,00
Armairu baxua	263,00
Kakotegia	59,00
Tabureteak	28,00
Bionboa	120,00
Monitore euskarri-kaxoia	52,00
Aulki ergonomikoak	250,00
Oin-azpikoa	56,00
TB	358,00
Bideoa, DVDa edo bideoa-DVDa	62,00
Telebistarako erretilua	48,00
Mahai gaineko ordenagailua	446,00
Ordenagailu eramangarria	502,00
CPU	299,00
Monitorea	96,00
Barruko disko gogorra	84,00
Kanpoko disko gogorra	52,00
Haririk gabeko teklatura	24,00
Software Office	118,00
Software Windows	118,00
Tableta	239,00
Ordenagailurako mahaia	132,00
Inprimagailu laser koloreduna	216,00
Inprimagailu funtzioaniztuna (faksa, inprimagailua, eskanerra eta kopiagailua)	65,00
Arbela	96,00
Terminal mugikorra	100,00
Funtzio anitzeko fotokopiagailua	545,00
Kortozko taula	61,00
Koadernatzailea	247,00
Prestazio handiko paper birringailua, (200 erabiltzaile baino gehiagorentzat)	255,00
Paper suntsitzaile normala (200 erabiltzaileentza gehienez)	42,00
Bideo proiektagailua	531,00
Proiektzioko pantaila tripodea	107,00
Hezetasun kengailua	191,00
Butanozko berogailua	257,00
Erradiadore elektrikoa	51,00

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN MODULU EREDUAK	MUGAK
Haizagailuak	34,00
8 elementuko armairua	348,00
Ontzi garbigailua	460,00
Sukaldea (plaka+labea)	555,00
Kafe makina	364,00
Lehorgailua	849,00
Hozkailua	409,00
Izozkailua	580,00
Karpa tolesgarria	180,00
Bitrozeramika	249,00
Mikrouhinak	53,00

Zernahi erakundek, deialdi honen harira, gai bererako eta ezaugarri berekin aurkeztutako gutxieneko zenbatekoa izango da aurreko zerrendan ez zehaztutako ekipamenduak diruz laguntzeko muga. Balorazio Batzordearen txostenean onartuko dira dirulaguntza muga horiek.

• Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) zenbatekoa diruz lagungarria izango da erakundeak zenbateko hori berreskuratzetik ez badu.

B) Diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontuak:

Diruz lagundu daitezkeen jarduketa bakoitzean ezarritako mugak zehaztuko du diruz lagungarria den gehieneko aurrekontua.

Laguntzen eraginkortasuna bermatzearen, eta jarduerak dirulaguntza jaso ahal izateko, jarduera bakoitzaren gehieneko aurrekontu diruz lagundu daitezkeenak, gutxienez, 20 eurokoa izan behar du.

C) Aldez aurretik diruz lagundutako jardunak: Dirulaguntza berriro jasotzeko gutxieneko epeak:

- Lokalak pintatzea: 6 deialdi.
- Beste egokitza pen batzuk: 10 deialdi.
- Ekipamendu informatikoa: 7 deialdi.
- Gainerako ekipamenduak: 10 deialdi.

Arrazoitutako kasu berezietan, epe horiek murriz daitezke.

#### Hamabigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Zortzigarren oinarriko irizpideak ezartzetik lortutako puntu guztiak batuz gero, lortuko den kopuruari dirulaguntzatarako gehieneko ehuneko esleituko zaio, ondoko taula honen arabera:

PUNTUAK	DIRULAGUNTZAREN GEHIENeko EHUNEKOA
50 punturaino	ehuneko 0
51 eta 59 puntu bitartean	ehuneko 60
60 eta 69 puntu bitartean	ehuneko 70
70 eta 79 puntu bitartean	ehuneko 80
80 eta 89 puntu bitartean	ehuneko 90
89 puntu baino gehiago	ehuneko 100

Esandako ehunekoek, hamaikagarren oinarriaren arabera diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontuei aplikatuta, zehaztuko dute dirulaguntzaren azkeneko zenbatekoa.

Erabilgarri dagoen aurrekontua agortzen duen azken multzoari dagozkion esleipenak egiteko, heinean banatuko da eskura dagoen geldikina, kalkulatu den hasierako dirulaguntzaren arabera. Hortaz, ez dira diruz lagungarriak izango aipatu den azken multzoaren ondorengo lehentasun multzoei lotutako jarduerak.

#### **Hamahirugarrena. Deialdia izapidetzea eta ebaztea**

13.1. Epe barruan eta dagokion eran aurkeztutako eskaerei dagokienez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egiaztatuko du ea eskaera horiek laguntza jasotzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen dituzten. Horrela ez bada, eskaera aurkeztu duenak hamar egun baliodun izango ditu eskatzen diren datuak eta agiriak aurkezteko. Eskatutako agiriak aurkeztu ezean, eskaerari uko egiten diola esan nahiko du (eta horretarako ebazpena emango da alde aurretik), urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erki-dearenak, 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak txostenak eska diezazkieke egoki deritzen erakundeei, eskatutako dirulaguntzei buruz zein eskaera egin duen erakundeari buruz; orobat, eskaera egin duen erakundeari espedientea osatzeko eta emandako datuak egiaztatzeko beharrezko izan litezkeen datuak, agiriak edo argibideak ere eska diezazkieke.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoa da prozedura agindu eta bideratzeko eskumena duen organoa eta hark txosten teknikoak egingo du, eta bertan dirulaguntzaren xede diren jarduerak zehazteraino egokitzen zaizkien deialdiaren helburuei jasoko du.

13.2. Zuzendariordetza Teknikoak, Arloko Programen koordinatzaileak eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eskaerak balioesteko batzordea osatuko dute.

Arloko teknikari adituek egindako txostenak aztertu ondoren, eta behin kreditu erabilgarria zein den kontuan hartu eta gero, ebazpen proposamena egingo du aipatutako batzordeak. Proposamen horrek dirulaguntza emango zaien erakunde eskatzaileen zerrenda eta dirulaguntzaren zenbatekoa jaso beharko ditu, baita ukatzeko proposatzen diren eskaerak eta horretarako arrazoiak ere, eta, orobat, esleitu ez diren kasuak, dela atzera egiteagatik, eskubideari uko egiteagatik edo erantzun ez zaien eskaeretan gerora sortu den ezintasun materialarengatik.

13.3. Ez da entzunaldiko izapiderik egingo, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko ebazpena hartzeko, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 82.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

13.4. Ebazpenak behar bezala arrazoituta egon beharko du eta dirulaguntza bidezkoa den edo ez adieraziko du, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko zuzendari-kudeatzaileak emango du, hala agintzen baitu Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko arautegiak 25. artikuluan. Horretarako, hiru hilabete izango dira gehienez, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Era berean, ebazpenak zehaztuko du zein den aintzat hartutako kontzeptu bakoitzeko diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoa. Eskatzaileei ebazpenaren berri emango zaie, eta horren aurka aurkez ditzaketen errekursoak adieraziko dira.

Ebazpena hartzeko epea igaro eta esanbidezko ebazpenik ez bada hartu, eskaera ezetsitatzat emango da, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen Foru Arauak (11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa) 23.5 artikuluan aurreikusten duenaren arabera. Hala ere, horrek ez du kenduko ebazpena hartzeko legezko eginbeharra.

13.5. Deialdi honetako laguntzak jasotzeko ezarri diren betekizun guztiak betetzeak ez dakar, berez eta besterik gabe, laguntza eskuratzeko eskubidea.

Deialdi baten babespean dirulaguntza emateak ez dakar berekin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko jarduketetarako nahitaez laguntza eman behar izatea.

13.6. Ebazpenaren aurka errekurtsioa jarri ahal izango da urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 121etik 126. artikulura arte xedatutakoaren arabera.

13.7. Honako deialdi hau ebatzi eta gero, dirulaguntza jasotako erakundeek, salbuespenezko izaeraz, esleipen ebazpenari buruzko aldaketak proposatu ahal izango dituzte, diruz lagundutako exekuzioaren garapena aldarazten edo zailtzen duten inguruabarrak agertzen badira; nolahi ere, inguruabar horiek ezin dute ekarri emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea.

Horretarako, erakunde eskatzaileak idatziz arrazoitu beharko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aurrean helburuak aldatzeko edo desbideratzeko eskaera, aipatutako inguruabarrak gertatzen diren unean, betiere 2019ko azaroaren 30a baino lehen.

Desbideratze edo helburu aldaketa hori deialdi honetan aplikatutako dirulaguntza irizpideen arabera onartu ahal izango da ebazpen baten bidez. Aurkeztu diren aldaketa eskaerak aztertuko dituzte teknikariek, eta Balorazio Batzordeak, txosten tekniko oinarri, emandako dirulaguntzak aldatzeko proposamena egingo du. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen organo eskudunak ebatziko ditu aldaketa horiek.

#### **Hamalugarrena. Ordaintzeko era**

Dirulaguntza ordaintzeko, diruz lagundu nahi izan den proiektua edo erosketa egin dela justifikatu beharko da alde zuzenetik.

Ordainketa egiteko, beharrezkoa izango da Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko bere zerga betebeharrak bete dituela egiaztatzea.

#### **Hamabosgarrena. Justifikazioa**

15.1. Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek, 2019ko abenduaren 31ra arteko epean, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

– Erakundearen laburpen-ziurtagiria, erakundearen legezko ordezkariak, hau jasoko duena: diruz lagundutako exekuzio bakoitzaren gastuak eta diru sarrerak, egindako erosketak eta/edo obrak erakunde horren bulegoetan daudela kokatuta eta eta horniketa egin duten enpresei edo pertsoneri horiek ordaindu izana. Gainera, onura publikokotzat deklaratu diren entitateek ziurtatu beharko dute eskurapen eta/edo obra horiek dagoeneko erakunde horren inbentarioan sartu direla, eta erregistraturik daudela han.

– Diruz lagundutako kontzeptuen jatorrizko fakturak. Ez da onartuko azaroaren 30a baino geroagoko data duen fakturarik.

– Aitzitik, 300,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatatu beharko da. Ez da onartuko abenduaren 31 baino geroago egindako ordainketarik. Ordainketa justifikatzeko, honako bitarteko hauek erabiliko dira:

– Enpresa hornitzaileak sinatutako hartze agiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Banku laburpen jatorrizkoa

– Laburpen elektronikoa edo transferentzia telematikoa, ordainketa bankuaren zigiluarekin ziurtatzen duena.

– Jatorrizko ordainagiria, enpresa jaulkitzailearen zigilu eta sinadurarekikoa, ordaindu zeneko data zehazten duena, edo erosketa txartel jatorrizkoa, hura eskuratuz zenbatekoa ordaindu dela adieraziko duena (saltoki motakoa).

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituen, bankuaren zigiluarekikoa.

– Aurreko hori gorabehera, 7/2012 Legeak 7. artikuluan ezarritakoaren arabera (urriaren 29koa, iruzurraren kontra egitekoa; 2012ko urriaren 30ean argitaratu zen EAOn), ez da onartuko eskudirutan egindako ordainketarik, indarrean den araudiak 2019rako ezarritako zenbatekoa adinako edo handiagoa bada (ez eta horien atzerrizko diruzko kontrabaliokorik).

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

15.2. Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren araberkoa izan beharko da haien formatua. Sinadura elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztuz gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

15.3. Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen ordainagiririk ez fakturarik:

Igorlea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

Hartzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

Gastuaren xedea.

Data.

Faktura zk.

Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia eta, batez ere, PFEZaren (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko xedapenak betetzen ez dituzten fakturak.

15.4. Gizarte izaera duten erakunde edo establezimenduek emandako zerbitzuen zioz jasandako BEZ zergaren kuotak gastu diruz lagungarri gisa aintzat hartuko dira, izaera horren aitortpena lortu duten gorabehera, betiere kasuan-kasuan aplikagarriak diren baldintzak betetzen badira (BEZ zergari buruzko Foru Arauaren 20 hiru artikulua, arau horren 20 bat artikulua zortzigarren atalak ezarritako zergaren salbuespena aplikatzearen ondorioetarako).

15.5. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak jatorrizko fakturekin batera aurkeztu diren fotokopiak konpultsatu ahal izango ditu. Horiek konpultsatu eta gero, aurkeztutako jatorrizko frogagiriak zigilu batez markatuko dira; zigiluan agertuko da zein dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu diren eta frogagiriaren zenbatekoa dirulaguntzari osorik edo zati bati egozten zaion. Azken kasu honetan, gainera, dirulaguntzak eragindako zenbateko osoa adierazi beharko da.

15.6. Justifikatzeko epea amaituta, erakunde onuradunak agiri guztiak aurkeztu ez baditu, 10 egun balioudun gehiago emango zaizkio haiek aurkez ditzan. Adierazitako epea igaro eta agiri horiek aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira, eta "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari emango zaio hasiera.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eman diren dirulaguntzak zertarako eta nola erabili diren egiaztatu ahal izango du, egoki irizten dion moduan, eta diruz lagundutako zerbitzu edo jardueren ezaugarriak, eraginkortasuna eta kalitatea neurtu ahal izango ditu.

Justifikatutako zenbatekoa ebazpenean adierazitakoaren arabera justifikatu beharreko zenbatekoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza dagokion proportzioan murriztuko da, esleipenean ezarritako baldintzen arabera.

#### **Hamaseigarrena. Erakunde onuradunen betebeharrak**

16.1. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek betebeharrak hauek dituzte, deialdi honetan ezarritakoez gain, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde

autonomo den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez emango dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan ezarritakoez gain, eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei eta transferentziei aplikagarri zaien araudian jasotakoez gain:

- Dirulaguntza jasotzeko oinarritzat hartu zen jarduera egitea.
- Dirulaguntza eman duen erakundeari edo, hala dagokionean, erakunde laguntzaileari, jarduera horiek egin direla egiaztatzea, bai eta dirulaguntza emateko edo dirulaguntza jasotzeko baldintzak edo betebeharrak betetzen direla ere.
- Dirulaguntza eman duen erakundearen egiaztapen jarduerak onartzea, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak kontrol ekonomiko eta finantzariorako eta kudeaketarako egiten dituenak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legerian eta beste erakunde eskudunen legerian xedatutako bestelako jarduerak ere.
- Edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk, Espainiakoak nahiz nazioartekoak, xede berarekin emandako dirulaguntzen edo laguntzen berri ematea idatziz erakunde emaileari, edo, hala dagokionean, erakunde laguntzaileari. Orobat, dirulaguntza emateko kon-tuan hartutako baldintzak aldatuz gero, horren berri emango dio.
- Deialdiaren xedearekin zerikusia duten komunikazio, publizitate eta propaganda jarduera guztiek Arabako Foru Aldundiaren aurretiazko baimena beharko dute eta aldundiaren irudi korporatiboari buruz hark esandakoa beteko dute.

16.2. Ezarritako betebeharrak horiek nahiz indarrean dagoen legerian onartutako edozein betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza azkentzea ekarriko du, eta ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli beharra.

16.3. Datu faltsuak eman edo datuak ezkutatu gero, eta dirua dirulaguntzen esleipen erabakian jasotako helburuetarako ez diren beste helburu batzuetarako erabiliz gero, bai eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzenak, 13. artikuluan adierazitako kasuekin aldiberekotasuna gertatu gero ere, emandako dirulaguntzen ordainketa agindua eten egingo da, eta hala dagokionean, ordaindutako dirulaguntzak itzuli beharko dira. Gainera, arrazoi horiengatik eska daitezkeen erantzukizunak ere bete beharko dira.

#### **Hamazazpigarrena. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna**

Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, Espainiakoak nahiz nazioartekoak dela, helburu bererako emandako beste edozein laguntza ekonomiko edo dirulaguntzarekin, baldin eta haien zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntzekin batera, ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua eta ez badakar diruz lagundutako jarduera estaltzeko eskatutako finantzaketa murrizterik, halakorik eskatuta egonez gero.

#### **Hamazortzigarrena. Azken klausula**

Deialdi honetako oinarriak honako arau hauek ezartzen dutenaren menpean egongo dira erabat: lehenik, Gizarte Zerbitzuen Sailak eta haren erakunde autonomiaduna den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez ematen dituzten dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak; bigarrenik, urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzena; eta azkenik, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 30a

*Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakaria*  
**M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO**

ORRIALDEA: 1 / 4

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ongizaterako  
Foru Erakundea  
Instituto Foral  
De Bienestar Social▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA  
www.araba.eus/ifbs/

A

E.00

## Eskaera Orria

**ELKARTE** edo **FUNDAZIOEN** lokal sozialak haien gizarte jarduerak edo programak aurrera eramateko **HORNITU**, **BIRGAITU** EDO **EGOKITZEKO** laguntzak

### Eskatzailea

<input type="text"/>	jauna/andrea	NAN	<input type="text"/>
<input type="text"/>	erakundeko	<input type="text"/>	<input type="text"/>

### Adierazi du

bere ustez eskaerak   
(e)ko laguntza deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela eta  € ko dirulaguntza

### Eskatu du

ekipamendu/berritze lanetarako laguntza gisa;  
horren kostu osoa  € koa da  
ondoko xehetasunen arabera

Eskaeraren xede den obra gauzatzea edo erosketa	Aurrekontua, guztira (euro)	Eskatutako kopurua (euro)
1. kontzeptua:	<input type="text"/>	<input type="text"/>
2. kontzeptua:	<input type="text"/>	<input type="text"/>
3. kontzeptua:	<input type="text"/>	<input type="text"/>
4. kontzeptua:	<input type="text"/>	<input type="text"/>
5. kontzeptua:	<input type="text"/>	<input type="text"/>
6. kontzeptua:	<input type="text"/>	<input type="text"/>
7. kontzeptua:	<input type="text"/>	<input type="text"/>
GUZTIRA:	<input type="text"/> 0,00 €	<input type="text"/> 0,00 €

Horretarako, eskatutako agiriak ERANTSI DITU eta ziurtatu du bertan esandakoa egia dela. Halaber, Gizarte Zerbitzuen Sailarekin **lankidetzan aritzeko konpromisoa** hartu du, bai eta laguntzaren xede den zentroa edo zerbitzua, jardura al-daketarik gabe, **gutxienez 10 urtez** lanean **mantentzeko ere**.  
Gainera, baimena eman du dokumentazioko datuak eskaera eta dirulaguntza datuen fitxategian sartzeko (Sailaren barruan egongo da eta luzetarakoa izango da), datuok ezarrita duten xederako erabiltzeko eta beste herri erakunde batzuei lagatzeko aurkeztutako eskaeren ebazpenak koordinatzeko.

Halaber, **BAIMENA EMAN DIO** GOFERi beharrezko ebazpen eta ohar guztiak jakinarazteko

faxean edo helbide elektroniko honetan:

(e)n

20  (e)ko  aren  (e)(a)n

(Pertsona eskatzailearen sinadura eta erakundearen zigilua)

ORRIALDEA: 2 / 4

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA

▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA  
www.araba.eus/ifbs/

A

E.00

## 1. Eranskina

## ERAKUNDEAREN BAIMENA, ORDEZKARITZA ETA IDENTIFIKAZIOA

<input type="text"/>	jauna/andrea NAN	<input type="text"/>
<input type="text"/>		erakundeko idazkariak,

## Ziurtatzen du

1º ERAKUNDEAREN ORDEZKARITZARI DAGOKIONEZ:

Erakunde horren Zuzendaritza Batzordeak/Patronatuak  (e)(a)n egindako bileran laguntza deialdi honen berri eman zen, dirulaguntza eskatzea erabaki zen kontzeptu horietarako, eta eskaera honetan eskatzaile ageri dena da pertsona baimendua horretarako.

2º BEZ-A ORDAINTZETIK SALBUETSITA EGOTEARI EDO EZ EGOTEARI DAGOKIONEZ (markatu dagokiona)

- Ordezkatzen dudun erakundeak ez dauka irabazteko asmorik, eta inoiz mozkinik lortuz gero, mozkinok irabazteko asmorik gabeko jarduerak egiteko erabiltzen ditu.
- Lehendakari, patroik edo ordezkari kargua doakoa da; beraz, ez da ordaintzen.
- Erakundeak BEZa ordaintzetik salbuetsita egotearen Zerga Agentziaren ziurtagiria dauka.

3º BERDINTASUNAREN ARLOKO ARAUDIA BETETZEARI DAGOKIONEZ:

- Erakunde eskatzaileak ez du zuzeneko eta/edo zeharkako sexuaren ziozko diskriminazio ekintzarik egiten onarpen prozesuetan zein funtzionamenduan, Osasunaren Lege Orokorren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasunaren Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Erakunde eskatzaileak ez du zigor eta/edo administrazio zehapenik izan sexuaren ziozko diskriminazioagatik eta/edo abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretutik, Lan arloko arau hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duenetik, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerakoaren, hamalagarren xedapen gehigarritik eratorritako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau hausteengatik.

(e)n

20  (e)ko  aren  (e)(a)n

(Idazkariaren sinadura eta erakundearen zigilua)

## IDENTIFIKAZIOA

Identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ):	<input type="text"/>	Entitatea legez eratu den data:	<input type="text"/>
Eusko Jaurlaritzako Erregistroko zk.	<input type="text"/>	G. Zerbitzuen Saileko Erregistroko zk.	<input type="text"/>


## HELBIDEA

Kalea / Pasealekua / Plaza:	<input type="text"/>	Herria	<input type="text"/>
Udalerrria	<input type="text"/>	Posta k.	<input type="text"/>
Telefona	<input type="text"/>	Faxa	<input type="text"/>
E-maila	<input type="text"/>	Web Orria	<input type="text"/>



ORRIALDEA: 3 / 4

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA

▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA  
www.araba.eus/ifbs/

A

E.00

## 1. Eranskina (jarraipena)

## OSAERA

Zuzendaritza Batzordearen/ Patronatuaren kide kopurua	gizonak <input type="text"/>	emakumeak <input type="text"/>	
Bazkide kopurua	gizonak <input type="text"/>	emakumeak <input type="text"/>	Urteko kuota <input type="text"/>
Urtean boluntario pertsonak	gizonak <input type="text"/>	emakumeak <input type="text"/>	
Urtean soldatuko pertsonak	gizonak <input type="text"/>	emakumeak <input type="text"/>	
Urtean artatutako pertsonak	gizonak <input type="text"/>	emakumeak <input type="text"/>	

## HARREMANETARAKO PERTSONAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK

Izen-deiturak

Erakundearen duen kargua  Telefonoa

E-maila

## DIRULAGUNTZA ESKAERAREN XEDE DEN LOKALAREN IDENTIFIKAZIOA

Lokalaren izena:

Helbidea:

Lokalaren titularraren izena:

Jabetza pribatua edo lagatakoa bada, adierazi epealdia eta erabilera baldintzak:

## XEDE BERTINERAKO BIDERATUTAKO BESTE DIRU SARRERA EDO DIRULAGUNTZA BATZUK

1. Eskaeraren xede den kontzeptua:

Diru sarrerak, aurreikusiak edo jasotakoak (erakundeak eta zenbatekoak)  €

2. Eskaeraren xede den kontzeptua:

Diru sarrerak, aurreikusiak edo jasotakoak (erakundeak eta zenbatekoak)  €

3. Eskaeraren xede den kontzeptua:

Diru sarrerak, aurreikusiak edo jasotakoak (erakundeak eta zenbatekoak)  €

4. Eskaeraren xede den kontzeptua:

Diru sarrerak, aurreikusiak edo jasotakoak (erakundeak eta zenbatekoak)  €

ORRIALDEA: 4 / 4

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ongizaterako  
Foru Erakundea  
Instituto Foral  
De Bienestar Social▶ DIPUTACION FORAL DE ÁLAVA  
www.araba.eus/ifbs/

A

E.00

## 2. Eranskina

### JABETZAREN ERREGISTROKO EDO ONDASUN HIGIEZINEN ERREGISTROKO FROGAGIRIAK

#### Hauetarako laguntzen eskaerak soilik: BIRGAIKUNTZA EDOTA ATONTZEA

LAGUNTZETARAKO DEIALDIAREN OINARRIEN ARABERA, HONAKO HAUEK ENTREGATU BEHAR DIRA:

- Entitate eskatzailearen jabetzako higiezinetan egin beharreko obretan: "Jabetza erregistroaren ziurtagiria edo ondasunen inbentarioaren ziurtagiria, ondasun higiezinaren jabetza egiaztatzen duena, bai eta dituen kargak ere, halakorik badago."
- Lagatako edo errentan emandako higiezinetan egin beharreko obretarako: "Lagapen edo errentamendu hori egiaztatzen duten agiriak"

BALDIN ETA AGIRI HORIEK AURREKO EKITALIDETAN ENTREGATU BADIRA ETA EZ BADIRA ALDATU HAIEN BALDINTZAK, NAHIKOA IZANGO DA ZIURTAGIRI HAU AURKEZTEA:

<input type="text"/>	jauna/andrea NAN	<input type="text"/>
<input type="text"/>	erakundeko idazkariak,	

#### ZIURTATU DU:

1.- (Higiezinak jabetzan). Dirulaguntza zein lokaletarako eskatzen den, haren titularitatea ez da aldatu, eta

-ren izenean dago oraindik ere erregistratuta; GOFeri

(e)(a)n (data adierazi) entregatu zitzaion agiria.

(jabearen baimenaren kopia entregatuko da, zein baldintza ezartzen den berariaz jasota).

2.- (Lagatako edo errentan emandako higiezinak): GOFeri  (data adierazi)

emandako dokumentuan adierazitako errentamendu edo lagapen baldintza berberak dirautela

Eta hau guztia jasota gera dadin, ziurtagiri hau sinatu da.

(e)n

20  (e)ko  aren  (e)(a)n

(Idazkariaren sinadura eta erakundearen zigilua)

ORRIALDEA: 1 / 3


▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA

▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA  
www.araba.eus/ifbs/**A****E.00****ESKAERAREN XEDE DIREN OBRA GAUZATZEEN EDO EROSKETEN  
PREMIARI BURUZKO MEMORIA TEKNIKOA**


Azalpenak idazteko leku gehiago behar baduzu: memoria teknikoaren bukaeran bi agiri zuri daude, atalen zehaztasun gehiago idazteko.

**(ORRI BAT BETE BEHAR DA, ESKAERAREN XEDE DEN OBRA GAUZATZE EDO EROSKETA BAKOITZEKO)****1. EGIN NAHI DEN OBRA GAUZATZE EDO EROSKETAREN AZALPENA****2. ESKAERAREN XEDE DIREN OBRA GAUZATZEAK EDO EROSKETAK EGITEKO  
PREMIAREN JUSTIFIKAZIOA****3. ELKARTEAREN HELBURU ETA JARDUERETARA EGOKITZEA****4. HAUTATUTAKO AURREKONTUAREN JUSTIFIKAZIOA (baldin eta  
aurkeztutakoen artean ekonomikoena ez bada)**

ORRIALDEA: 2 / 3



ORRIALDEA: 3 / 3



► ARABAKO FORU ALDUNDIA



► DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

### BAIMEN ESKAERA, DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK EDO EROSKETAK LOTUTAKO ENTITATEEKIN AZPIKONTRATATZEKO

Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 27.7 d) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, dirulaguntzaren onuraduna den entitateak inolaz ere ezingo ditu hitzartu diruz lagundutako jarduera guztiak edo batzuk onuradunari lotutako entitate edo pertsonekin, baldin eta inguruabar hauek gertatzen ez badira:

1. Kontratazioa **merkatuaren baldintza arrunten** arabera egitea.
2. **Aldiz aurretik organo emailearen baimena jasotzea**, oinarri arautzaileetan ezarritako moduan.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren Arautegiak 68.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 27.7 d) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, **lotura dagoela joko da** pertsona fisiko edo juridikoekin zein nortasunik gabeko taldeekin, baldin inguruabar hauetakoren bat badute:

- a. Ezkontzaz edo antzeko afektibitate harremanez lotuta dauden pertsona fisikoak, edo odol ahaidetasunezko laugarren mailara arteko edo ezkontza ahaidetasunezko bigarren mailara arteko senideak.
- b. Aldian behingo ordainketen bidez ordaindutako lan harremana duten pertsona fisikoak eta juridikoak.
- c. Dirulaguntzen Lege Orokorraren 11. artikuluan 2. idatz zatian aipatutako onuradunaren bazkideak izatea, eta 3. idatz zatian jasotako nortasun juridikorik gabeko entitateetako kideak izatea edo haietan partaidetza izatea
- d. Sozietate bat, eta bertako gehiengodun bazkideak edo bertako aholkulari edo administratzaileak, ezkontideak edo antzeko afektibitate harremanez lotuta daudenak eta odol ahaidetasunezko laugarren mailara arteko edo ezkontza ahaidetasunezko bigarren mailara arteko senideak.
- e. Uztailaren 28ko 24/1988 Legeak, balore merkatua arautzen duenak, 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, talde bereko kide izateko baldintzak betetzen dituzten sozietateak.
- f. Pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko taldeak, eta horien legezko ordezkariak, nagusiak edo administratzaileak, ezkontideak edo antzeko afektibitate harremanez lotuta daudenak eta odol ahaidetasunezko laugarren mailara arteko edo ezkontza ahaidetasunezko bigarren mailara arteko senideak.
- g. Pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko taldeak, eta lege, estatutu edo kontratu arauen arabera horien irabazietan % 50etik gorako partaidetza izateko eskubidea duten pertsona fisiko, juridiko edo nortasunik gabeko taldeak

Kontratazio horiek dirulaguntza ematen duen organoari eskatuta eta baimenduta egon behar dute

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

**BAIMEN ESKAERA, DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK EDO EROSKETAK LOTUTAKO ENTITATEEKIN AZPIKONTRATATZEKO**

**DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN IZENA**


Eskatzailearen izen-abizenak

NAN

Honen ordezkari izan

IFK

Eskatzaileak ardura hau du

Goian zehaztutako pertsonak, ordezkari gisa, **ESKATZEN DIO**,

**dirulaguntzen deialdi publikoaren** 4.5 oinarriak, eta 11/2016 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenaren, 27.7.d) artikuluan xedatutakoa aplikatuz dirulaguntza emateko eskumena duen organoari, azpikontratazioa egiteko baimena ematea, lotutako pertsona/entitate honekin:

Izen-abizenak edo sozietatearen izena

IFZ/IFK

**LOTURA MOTA**

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren, 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra onartzen duenaren, 68.2 artikulua ezarritakoarekin bat etorritik

Azpikontratazioaren deskripzioa

Azpikontratazioa egiteko baimen eskaera egiten da, zenbateko hau eskuratzeko

Azpikontratutako jardueraren ZENBATEKOA, GUZTIRA

Era berean, HITZEMATEN DU kontratazioa merkatuaren baldintza arruntan arabera egiteko

.....  
(Tokia eta data)

Sin.:  
(Entitatearen legezko ordezkariaren sinadura eta haren zigilua)